

Urh****

LAGUNDUKO
DIZUGU ZURE BIDAIA
PLANIFIKATZEN?



Ongi etorri Gipuzkoara!

Ezin edertasun gehiago topatu lurralde txiki honetan.

Zure bisitaz ahalik eta gehien gozatzea nahi dugu; natura ikusgarria, kultura, gastronomia, eta hiri animatuak.....

Hona hemen iradokizun eta gomendio batzuk.

Ez izan zalantzarik; behar duzun edozein informazio guri kontsultatzeko, pozten gara zuri laguntzeaz!



UROLA BAILARA



GIPUZKOAKO KOSTALDEA



SAGARDOAREN LURRALDEA



GIPUZKOA BARNEALDEA



EZAGUTU EUSKAL HERRIA



ljh***

TURISMO GOMENDIOAK

UROLA BAILARA

LOIOLAKO SANTUTEGIA

EKAINBERRI

FLYSCH



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
UROLA BAILARA



LOIOLAKO SANTUTEGIA

Hoteletik 15 minutura

Loiolako Santutegia Azpeitian dago. Gure “Batikano Txikia” mundu osoko pertsonak erronesaldia egiten duten lekua.

Konplexu arkitektoniko honetan kupula ikusgarria nabarmentzen da, garaiko erromako arkitekturan inspiratua eta Jesusen



Lagundiaren sortzailea izan zen Loiolako San Inazioaren jaiotetxea.

Lorategi zabaletan paseatzea, Etxe Santuaren museoa bisitatzea eta Santutegia bisitatzea merezi du; azken hau, Berniniren ikasle batek XVII. mendenan diseinatutako eraikin barroko bikaina da.


Familia-plana: Urola ibaian zehar doan 10 kilometroko ibilbide bikainaz gozatu, egurrez egingako tren-makina batean; **Trenbidearen Euskal Museoan**. (Kontsultatu ordutegiak)





Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
UROLA BAILARA



EKAINBERRI

Hoteletik 25 minutura

Ekainberri Zestoan dago, Ekain haitzuloaren erreplika zehatza daukazue, arte paleolitikoko harribitxia da, eta bere labar-pinturak Gizate-riaren Ondare izendatu dituzte.

Erreplika erreprodukzio bat baino gehiago da; argiztapenarekin, soinuarekin eta tenperatu-
rarekin ondo girotuta dago, benetako sentsa-



zioaz goza dezazun. (Bisita gidatuak soilik, aldeztu aurretik erreserbatuta)

Bisita amaitzeko modu polita da 500 metrora dagoen jatorrizko haitzuloaren sarreraraino paseatzea.

Familia-plana: haurrentzako arkeologia esperimentaleko tailerretan parte hartu. (Aldeztu aurretik erreserbatuta)





Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
UROLA BAILARA



FLYSCH

Hoteletik 35 minutura

Zumaiako kostaldeko herrian bitxi natural bat gozatu ahal izango duzu: Flyscheko itsaslaba-rrak, Uneskoren ondare naturala.

Lurraren historiaren 60 milioi urte baino gehiagoko harriz idatzia dagoen egunkari bat da; dinosauroen iraungipenaren arrazoia ulertzeko balio izan du.

Flyschaz itsasotik gozatu ahal izango duzu itsasontziz bisita gidatua eginez (aldez aurretik erreserba eginda), edo San Telmo ermitatik abiatzen den bide erraz batetik ibiliz.



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
UROLA BAILARA



Argazkigintza maite dutenentzat: itsasbeheran, marearteko zabalgunetik paseatu eta argazki ikusgarriak atera ahal izango dituzu. Ilunabarrak ikusgarriak dira.



Bitxikeri bat: Game of Thrones seriean Roca-dragoni bizia eman zion kokapenetako bat da.

Plan Aktiboa: mendi-ibiliak gustuko badituzu, ezin duzu galdu **Flysh ibilbidea**, Zumaia eta Deba lotzen dituen 14 km-ko bide ikusgarri batetik, bertan Flyscheko itsaslabarraren ikuspegi onenak gozatuko dituzu. Deban trena hartu ahal izango duzu eta 20 minututan Zumaiara itzuliko zara.

Gure gomendio gastronomikoa: olagarroa gustuko baduzu, leku ezin hobean zaude, Zumaiako sukaldaritza tradizionalaren osagai nagusietako bat baita.





Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK

GIPUZKOAKO KOSTALDEA

GETARIA

ZARAUTZ

HONDARRIBIA

PASAI DONIBANE / PASAI SAN PEDRO

DONOSTIA



GETARIA

Hoteletik 40 minutura

Getaria arrantza-tradizioko herri txiki eta karismatikoa da, arrain erretegiengatik eta Juan Sebastian Elkano (munduari bira eman zion lehen gizona) eta Cristobal Balenciaga jostunaren jaioterria izateagatik ezaguna dena.



Alde zaharreko kaleketan paseatzea gomen-
datzen dizugu, gatzetz bustitako aireaz eta pa-
rrillako arrain usain gozoaz gozatzea, artisau
arrain-kontserba bikainak erostea, bertako eli-
za gotikoa bisitatzea, portutik paseatzea ber-
tako arrantza-ontziak ikusteko, San Antonera
igotzea "Getariako sagua", eta, jakina, Geta-
riako txakolin-edalontzi bat dastatzea.

Jatetxe hauek gomendatzen dizkizugu: Elkano,
Kaia eta Txoko. (ezinbestekoa da aldez aurretik
erreserba egitea).

Denbora baduzu: bisitatu **Cristóbal Balenciaga
Museoa**, bertan, munduan bakarra den jantzi
eta osagarrien bilduma bat ikus dezakezu.



Ijh****

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOAKO KOSTALDEA



Familia-plana: bizi beste esperientzia bat Maisor artisau-kontserben lantegian, Kantauriko benetako antxoa egiten ikasi eta bertako produktuak dastatzeko. (Aldez aurretik erreserbatuta)

Plan gastronomikoa: txakolin upategi batera bisita dastaketarekin. (Aldez aurretik erreserbatuta)



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOAKO KOSTALDEA



ZARAUTZ / PAGOETAKO PARKE NATURALA

Hoteletik 40 minutura

Zarautzek Kantauri itsasoko hondartzarik zabalenetako bat du, surfa praktikatzeko mundu osoan ezaguna.

Gozatu hondartzako egun batez, paseatu terrazaz betetako malekoian, eta bertan, surfariari begira zaudela, gustukoen duzun edaria hartu ahal izango duzu. Alde zaharra bisitatu



Ijh****

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOAKO KOSTALDEA



eta bertako plazez eta tabernez gozatu pintxo goxoz betetako barrekin.

Plan aktiboa:

- Gozatu Zarautz eta Getaria lotzen dituen kostaldeko errepidearekiko 4 kilometroko **oinezkoentzako pasealekuaz**. Aldaparik gabeko pasealeku atsegina itsasoko haizeaz gozatzeko. Gainera, Zarautzera autobusez itzul zaitezke Getariako edozein tabernatan indarberritu ondoren.
- Balezale ohiek erabiltzen zituzten talaiak ikusi ahal izango dituzu **Zarautz eta Getaria arteko talaiako bidetik**. Txakolin mahastien arteko



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOAKO KOSTALDEA



7 kilometroko bidea da eta kostaldearen ikuspegi ikusgarria izango duzu. Bidea aldapa batekin hasten da Santa Barbara ermitara iritsi arte, baina gero errazago egiten da.

Familia-plana: Anima zaitez surf eskola batean surf eskola batzuk erreserbatzera. Adin guztietarako egokitutako eskolak daude. (Aldez aurretik erreserbatuta).

Nondik ikusiko duzu ilunabarrik onena? Zailantzarik gabe, **Talaimendi** menditik (191 m) eta Mollarritik. **Mollari** Talaimendi atzean ezkutatutako uhartetxo bat da.



Bi modutan joan ahal izango duzu: hondartza amaitu arte paseatuz Talaimendi mendiarekin egingo duzu topo. Eskailera guztiak igotzen badituzu, bistak sinestezinak dira.

Autoz Zarautzeko kanpinara joan behar duzu. Utzi autoa aparkalekuan eta jarraitu Mollarrira zaramatzaten indikazioak.

Zarauztik gertu, **Aia** herrian, **Pagoetako Parke Naturala** dago. Bere izena bere pago basoetatik dator. Hemen lorategi botaniko handiti ba-






tetik paseatu ahal izango duzu edo Pagoetako Gurutzeraino igo.

Iturrarango Lorategi Botanikoko bidexkak

mundu osoko 6.000 landare baino gehiago dituen baso batetik eramango zaitu. Altxor bat, inguratzen duten baso ikusgarrien artean ezkutatua. Plan ezin hobea da familia osoarentzat.

Pagoetako Gurutzera igotzeko (676 m), Aiako hirigunearen erdian dagoen aparkalekutik abiatu behar duzu, Asteasurako errepidea zeharkatu eta seinale zuri-horiak (PR GI-35) hartu pista batera iritsi arte. Hemen Pagoeta dioen kartel bat agertuko da.





HONDARRIBIA

Hoteletik 40 minutura

Gipuzkoan hobekien kontserbatutako Erdi Aroko hiri harresitu hau, ezinbesteko bisita da.

Plazer handia da alde zaharreko galtzada-harrizko kale estuetatik paseatzea eta Erdi Aroko jatorria salatzen duten eraikin historiko eta ederrak mirestea.



Ezinbestekoa: **La Marina auzoa bisitatu** (arrantzaleen auzoa), itsas giroaz gozatu eta pintxo eta arrain-ano tipikoak dastatzeko.

Familia-plana: hartu itsasontzi txiki bat **Hendaia** bisitatzeko. Ontziak 15 minuturo ateratzen dira Butron Pasealekutik eta 7 minutu baino ez dute behar.

Plan aktiboa: **Higer lurmuturreko** itsasargitik kostaldea zeharkatzen duen GRtik dituzuen ikuspegi ederrak gozatu, Guadalupeko santutegirainoko 9 kilometroko ibilbidea eginez.





Ijh

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOAKO KOSTALDEA



PASAI DONIBANE / PASAI SAN PEDRO

Hoteletik 35 minutura

Pasai Donibane bisitatzeko, herrigune historikora joatea gomendatzen dizugu, eta porturantz doan zabalguneraino jarraitu, autoa aparkatu eta hortik herrigune historikorantz paseatu.

Pasai Donibane oso marinel herri berezia da. Herrigune historiko osoa zeharkatzen duen kale bakarra du, igoerak, jaitsierak,

etxe azpiko pasabideak eta Santiago plazara iritsi arte ezkutatuta dauden txokoak dituen. Bertan, itsas etxe koloretsuen argazki tipikoa aurkituko duzu.

Gomendatzen dizugu plazatik itsasorantz ibiltzea. Eliza atzean utzita, 20 minutuko ibilaldi eder eta erraz bat hasten da portuaren ahora iritsi arte. Han, fiordoaren antzeko paisaia batek harrituko zaitu.



Plaza honetatik bertatik, ontziralekuan, txalu-pa txiki bat har dezakezu Pasai San Pedrora gurutzatzeko.

Pasai San Pedro Europako baleontzi portu nagusia izan zen garai batean, eta bertatik itsasoratzen ziren euskal espedizio handiak Ternuara.



Ijh^{***}

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOAKO KOSTALDEA

Hemen **Albaola Faktoria** bisitatu ahal izango duzu, euskal itsas historia ezagutuko duzun museoa, eta bertatik bertara ikusi ahal izango duzu XVI. mendeko San Juan baleontziaren erreplika baten eraikuntza.





Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOAKO KOSTALDEA



DONOSTIA

Hoteletik 30 minutura

Erraza da asmatzea zergatik askok munduko hiririk ederrenetakotzat hartzen duten.

Denetik duela esan daiteke: natura, hondartzak, tradizioa, gastronomia, kultur jardue-ra eta giro zoragarria.



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOAKO KOSTALDEA



Zer egin daiteke Donostian?

- * Kontxako badian zehar paseatu dezakezu Eduardo Chillidaren **Haizeen Orrazira** iritsi arte.
- * Igo funikularrean **Igeldo** mendira eta gozatu ikuspegi panoramikoaz.
- * **Alde Zaharreko kaleak** bisitatu eta eskaintzen dituen aukera gastronomiko guztiez gozatu.
- * Bisita ezazu **Konstituzio Plaza eta balkoiak** ondo begiratu. Zergatik daude zenbakituta? Antzina, plazan zezenketak izaten ziren, eta balkoiak palko gisa erabiltzen ziren.

Bitxikeri bat: plaza honetako arkitektoa Pedro Manuel de Ugartemendia da, gure hoteleko arkitekto bera eta 1813an indar aliatuek su



Ijh

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOAKO KOSTALDEA



eman ondoren Donostiako berreraikuntzan parte hartu zuena.

- * Pasea ezazu portutik eta Akuariuma bisitatu.
- * Erlaxatu La Perlako Talasoterapia Zentroan. Hondartzarako sarbide zuzena duen Itsas urezko talaso-zirkuitua zoragarria da.
- * **Zurriola** hondartzako gazte eta surflari giroaz gozatu.
- * San Telmo Museoa visita ezazu edo goza ezazu **kultura garaikideaz** Tabakaleran.
- * Hirian zehar paseatu **Belle Epoque**ko eraikinik esanguratsuenak begiratzuz.



* **Santa Klara uharteraino** gurutzatu ontzi txiki batean.

* Denboraldiko produktuak erosi itzazu Bretxako merkatuan.

* **Urgull mendira** igo eta bertako txoko bitxiak aurkitu; ingelesen hilerria adibidez.

Ezinbestekoa: eguzkiaren ilunabar ederrak ikustea. Hiriko hainbat tokitatik gozatu ahal izango duzu, baina guri asko gustatzen zaigu



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOAKO KOSTALDEA



nautikoko pasabidetik edo Akuariumeko terrazatik eserita itxaroten ikustea.

* Gozatu Victoria Eugenia Antzokian ikuskizun batez, Jazzaldian aire zabaleko musika entzuten eta **Donostiako Zinemaldian** zinemaz gozatzen.



ljh***

TURISMO GOMENDIOAK

SAGARDOAREN LURRALDEA

ASTIGARRAGA, HERNANI ETA
USURBIL / CHILLIDA MUSEOA

Lurralde txiki honetan kultura, ohiturak eta
historia sagardoarekin lotuta daude.



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
SAGARDOAREN LURRALDEA



ASTIGARRAGA, HERNANI ETA USURBIL / CHILLIDA MUSEOA

Hoteletik 30 minutura

Herri horietan biltzen dira Gipuzkoako sagardotegi gehienak.

Sagardotegiko giroaz gozatzea gomendatzen dizugu denboraldian zehar (urtarriletik apirilaren amaierara arte), hala ere, baina badira urte osoan zehar irikita egoten diren sagardotegiak. Zalantzarik gabe gomendatzen dizugun esperimentzia da.



Astigarragan Sagardoetxea bisitatu ahal izango duzu, sagardoaren museoa, eta bertan sagardoaren munduko sekretu guztiak ezagutzeko aukera izango duzu.

Hernanin Chillida-Leku Museoa dago, eta bertan Eduardo Chillida eskultorearen lanez gozatu ahal izango duzu kanpoko lorategian paseatuz. Bertan, tamaina handiko lanak daude ikusgai, baita XVI. mendeko baserri baten barruan ere.

Lorategia, zalantzarik gabe, leku ezin hobea da argazkigintza maite dutenentzat.



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
SAGARDOAREN LURRALDEA



Plan aktiboa: Andoainen **Leitzarango Bide Berdea** hasten da.

Garai batean meatze-trenbidea izan zen; orain, basoak zeharkatzen dituen 22 kilometroko ibilbidea da, eta paisaia natural ederraz goza dezakezu. Bidean tuneletan zehar igaro zaitez, hau primerako plana da egunik beroenetan. Paseatzeko edo bizikletan ibiltzeko bide egokia da.

GIPUZKOA BARNEALDEA

TOLOSA - MERKATU TRADIZIONALA

LARRAITZ - ARALAR
PARKE NATURALA

ORDIZIAKO MERKATU TRADIZIONALA

SEGURA / ZERAIN

ARDITURRI MEATEGIA

IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

HERNIO MENDIA / ILLAUN / MENDIKUTE

OÑATI / ARANTZAZU SANTUTEGIA /
ARRIKUTZ KOBAZULOA



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOA BARNEALDEA



TOLOSA - MERKATU TRADIZIONALA

Hoteletik 10 minutura

Tolosa garrantzi handiko bidaiarien pasabide eta ibilbide komertzial ospetsuko hiribildu harreritua izan zen.

Sartu zaitez alde zaharrera Gaztelako atetik; Frantzia edo Gaztelarako bidean bidaiariek zeharkatzen zuten ateatik pasa eta Zerkausia bi-



sitatu. Bertan, larunbatetan, mendeetan zehar eta etenik gabe egon den azoka tradizionala bisitatu ahal izango duzu.

Azokan, bertako produkturik onenak erosteko aukera izango duzu; Tolosako babarrunak, Ibarako langostinoak, Idiazabal gazta, sagardoa, eztia, ogi ekologikoa...



Tolosak gozogintzak tradizio handia du; bere postrerik ezagunenetako batzuk erosi ahal izango dituzu, hala nola, Teilak, Zigarroak eta xaxuak.

Nafarroako Zubia zeharkatu Tolosako argazkirik tipikoena ateratzeko, Santa Maria eliza bisitatu eta plazak eta alde zaharreko kaleak gozatu haietatik paseatuz.

Haragia maite dutenentzat: txuletoa dastatu Tolosako erretegi ezagun batean. Casa Nicolas eta Casa Julian erretegiak gomendatzen ditugu.

Familia-plana: **Topic**, Tolosako Txotxongilo Museoa bisitatu.

Euskal pilota partidu bat ikusi nahiko zenuke? Kontsulta ezazu **Tolosako Beotibar** pilotalekuko jardueren agenda.

Bitxikeri bat: “Frontón” tabernaren barruan, leiho txiki batetik, une oro Beotibar pilotalekuan zer gertatzen den ikusiko duzu gus-tukoen duzun edaria hartzen duzun bitartean.



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOA BARNEALDEA



LARRAITZ - ARALAR PARKE NATURALA

Hoteletik 20 minutura

Iristeko, N-I errepidea hartu behar duzu Gasteizerako noranzkoan. Handik minutu batzuetara, Alegiatik gertu dagoen 431 irteera hartu eta GI 2133 errepidetik jarraitu Amezketarantz eta gero Abaltzizketatik pasa **Larraitz**era iristeko.

Aparkatu autoa ermitatik gertu dagoen apar-kalekuan, orduan, **Aralar Parke Natural**erako sarbide nagusietako batean egongo zara.



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOA BARNEALDEA



Ingurune natural zoragarriaz eta **Txindoki** mendiaren ikuspegi ederraz gozatu ahal izango duzu.

Parkeak naturarekin lotutako era guztietako jarduerak eskaintzen ditu; alde batetik, mugikortasun urriko pertsonentzat edo itsuentzat prestatutako bidexka batetik pasea dezakezu edo igo Txindoki mendira igo zaitezke (1331 m).



Gomendatzen duguna: gozatu inguruneaz, paseatu eta hartu hamaiketakoa inguruan aurkituko dituzun jatetxe edo askaldegietan.

Familia-plana: aparkalekutik oso gertu eta naturaz inguratuta aurkituko duzu **Txindokiko Itzala**. Abentura parke bat da zuhaitz arteko tirolinekin, han adin desberdinetarako begirale egokiek gidatutako jarduerak antolatzen dira. (Aldez aurretik erreserbatuta).





Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOA BARNEALDEA



ORDIZIAKO MERKATU TRADIZIONALA

Hoteletik 20 minutura

Larunbatetan ospatzen den Tolosako azoka bisitatzeko aukerarik ez baduzu, asteazkenean azoka tradizional bat bisitatzeko beste aukera bat izango duzu.

Ordiziako azoka asteazkenean ospatzen da XI-XII. mendetik. Gastronomiaren erreferentzia-puntu garrantzitsua da, eta eskualde osoko nekazaritza- eta abeltzaintza-produktu onenak aurkituko dituzu bertan.

Benetako giroaz gozatzeko eta bertako produktuak erosteko aukera izango duzu.



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOA BARNEALDEA



SEGURA / ZERAIN

Hoteletik 25 minutura

Segura herri xarmagarria da. Bere erdi aroko hirigune historikoa oso ondo kontserbatuta dago.

Bertan, antzinako harresiaren ibilbidea ikusten da oraindik, eta bere kale nagusiak garrantzi handia zuen; merkataritza eta erromesen ohiko pasabideak zirelako.

Paseatu kaleetatik eta plazetatik eta gozatu jauregi eta oinetxez.

Ezinbestekoa: bisitatu **Ardixarra Etxean** dagoen turismo-bulegoa. Euskal Herriko erdi aroko hiri-eraikinik zaharrenetako bat da.



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOA BARNEALDEA



Zerainera iristeko, errepide nagusitik desbideratu eta muino bat igo beharko duzu.

Meatzaritza-tradizioko herri txiki bat da, eta euskal historia gehiago ezagutzeko hainbat jarduera eskaintzen ditu. Hemendik Aizkorri (1528 m) mendiaren bista ederrez gozatuko duzu.

Gomendatzen dugu: informazio turistikoko zentroa bisita ezazu, urteko sasoiaren arabera dauden jardueren berri emango dizute eta. Adibidez, **Burdinaren lurrak eta Aizpeako Meategiak** bisita.



Plan aktiboa: Seguratik gertu, Zegaman, **San Adriango tunel**era eramango zaituen bidezi-dorraz gozatu ahal izango duzu (Donejakue bi-dearen zati bat barrualdetik).

Aparkatu autoa San Adriango aparkalekuan eta igo mendiko babeslekuraino. Babeslekutik tunelerako bidea ikusiko duzu argi eta garbi. Tunelak harkaitzezko mendi bat zeharkatzen du eta barruan San Adrian basiliza topatuko duzu. Sinbolismoz betetako lekua da erdi aroan gotorleku eta ostatu izan baitzen, bidean atsedeen hartzeko, elikagaiak lortzeko edo zaldi agortuak aldatzeko.

Tunela zeharkatutakoan, inguru ikusgarria aurkituko duzu, baita erromesek eta merkatariek erabiltzen zuten erdi aroko galtzada ere.





Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOA BARNEALDEA



ARDITURRI MEATEGIA

Hoteletik 40 minutura

Oiartzunen, Aiako Harria Parke Naturalerako sarbideetako batean, Arditurri Meategia dago.

Bisita gidatu batean (aldez aurretik erreserbatuta), duela 2.000 urtetik etengabe ustiatu diren meatze-galeria bakanetako bat ikusi ahal izango duzu (erromatar inperioa iritsi baino lehenagokoa).



IJh^{***}

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOA BARNEALDEA

Galeriaren barruan giro magikoa biziko duzu, eta argiztapenak eta soinuak galeria hauen historiaren garai ezberdinetara eramango zaituzte.

Antzinako material-kargategiak, putzuak, mineral-zainak edo lurpeko lakuen paisaia ikusgarria aurkituko dituzu.

Plan aktiboa: paseatu **Arditurriko bide berde-tik**. 12 km-ko bidea, oinezkoentzat eta txirrindularientzat bakarrik, Oiartzun udalerria zeharkatzen du eta Arditurriko meategiak Pasaiako portuarekin lotzen zituen trenbide zaharraren gainetik igarotzen da.





Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOA BARNEALDEA



IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

Hoteletik 20 minutura

Ezkio herrian **Igartubeiti Baserri Museoa** dago. Baserria Euskal Herriko eraikinik interesgarrienetako bat da, XVI. eta XVII. mendeetako zurzko arkitekturagatik eta barruan antzinako sagardo dolare handi bat dagoelako.

Barruan, duela lau mendeko euskal baserri baten benetako bizitza irudikatzen da, argiztapenarekin, altzariekin, jatorrizko erremintekin, eta abar...

Gomendatzen dugu: bisita ezazu museoa bisita gidatu batekin (aldez aurretik erreserba eginda).



Ijh^{****}

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOA BARNEALDEA



HERNIO MENDIA / ILLAUN / MENDIKUTE

Hoteleko atletik irteten

Gure hoteleko atletik irtenda, haran eder hau ezagutzera eramango zaituzten bidezidorrez gozatu ahal izango duzu.

Hernio mendiaren gailurreraino igo ahal izango duzu (1078 metro) 3 ordu eta 40 inguruko



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOA BARNEALDEA



joan-etorriko ibilbide batean, edo ingurutik paseo txiki bat eman naturaz gozatzeko.

Gomendagarria: iraileko igande guztietan, Zelatunen (gailurraren aurreko zabalgunean) erromeria tradizionalak ospatzen dira.

Leku horretan bertan, bi mendi-jatetxe dau-de. Bertan atsedean hartu eta indarberritu ahal izango duzu.



Beste plan aktibo batzuk: Hernio mendiaz gain, hoteletik gailurrera iristeko denbora gutxiago behar duten eta errazagoak diren beste bide batzuetatik joan ahal izango duzu.

Ordu batean, hoteletik oinez, **Illahun** edo **Mendikute** mendien tontorretik ikuspegi zoragarriez gozatzeko aukera izango duzu.

Nola iritsi? Sartu gure instagram kontuko Trekking karpetan eta mendi horietara iristeko argibideak aurkituko dituzu. Harreran, noski, pozik lagunduko dizugu.





Ijh^{***}

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOA BARNEALDEA



OÑATI / ARANTZAZU SANTUTEGIA / ARRIKUTZ KOBAZULOA

Hoteletik 35/40 minutura

Oñati Jauntxo eta Kondeen lurraldea izan zen eta hori argi islatzen da alde zaharretik paseatzean.

Ibili Kaleetatik jauregi, eliza eta dorretxe ikusgarriak aurkitzeko, sartu Sancti Spiritus Unibertsitatearen barruan klaustroa eta



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
GIPUZKOA BARNEALDEA



erretaula ikusteko, bisitatu XV. mendeko San Migel edo gozatu Foruen Plazako terraza batean dagoen giroarekin.

Oñatitik 9 km-ra **Arantzazuko Santutegia** dago.

Eraikin harrigarria da, kokapenagatik eta amil-degi batetik zintzilik dagoelako. Baita euskal arte garaikidearen erakusle den estiloagatik ere. Bertan, aurrerakoiak izandako artistek lan egin zuten, garaiko arkitektura moldeak hautsiz.

Bere fatxada berezia deigarria da, baina ez ahaztu barrualdea bisitatzea. Bertan, bere erretaula nagusia, beirateak edo kriptak miretsi ahal izango dituzu.

Basilikaz gain, **Aizkorri** mendiaren magalean



dagoen ingurune naturalaz gozatzeko aukera izango duzu.

Gainera, gunean jatetxe eta tabernetako hainbat proposamen aurkituko dituzu atseden hartzeko.

Plan aktiboa: igo **Aizkorri** mendira (1528 m).

Euskal Herriko mendirik altuenetakoa da. Tontorretik Gipuzkoako hegoaldeko eta Arabako lautadako bista bikainak izango dituzu.

Oñatin **Arrikrutz Kobazuloa** dago.

60 minutuko bisita gidatu baten bidez eta 500 metroko pasabide bati esker, Aizkorri mendikatearen barruan dagoen geologia mirari hau ezagutuko duzu. (aldez aurretik erreserbatuta)





Mendeetan zehar urak haitzean zizelkatutako kobazuloa, lurpeko ibai bat eta estalaktita erraldoiek apaindutako galeriak bezalako fenomeno ikusgarriekin.

Gainera, haitzulo hau berezia da historiaurreko animalien aurkikuntzengatik, hala nola erri-nozero iletsuaren aztarnak, haitzuloetako hiena eta haitzuloetako hartz-hezurak. Hala ere, aurkikuntzarik garrantzitsuena haitzuloetako lehoi baten hezurdura osoa da.

Familia-plana: Oñatitik gertu, **Aretxabaletan Urkuluko Urtegia** dago.





Oso leku lasaia, mendiz eta basoz inguratua urtegiaren perimetro osoan paseatu ahal izateko (6,4 km – Ordu eta erdi oinez).

Ez du desnibelik, eta ondo asfaltatuta dago, beraz, familia osoarentzat da egokia. Bidegorri bat eta hegaztiak ikusteko hainbat plataforma ditu.

Gure gomendioa: ez aparkatu berehala urtegira iristean, segi urtegiaren paraleloan doan errepidetik, aparkaleku bat duen gune batera iritsi arte, eta hasi erlojuaren orratzen kontrako noranzkoan.





ljh***

TURISMO GOMENDIOAK

EZAGUTU EUSKAL HERRIA

BILBAO

URDAIBAIKO
BIOSFERAREN ERRESERBA /
GAZTELUGATXEKO ARROKAK

DONIBANE LOHIZUNE / MIARRITZE

SARA, AINHOA ETA EZPELETA

ZUGARRAMURDI,
ZORGINEN LEIZEA

GASTEIZ

LAGUARDIA / ARDO-UPELTEGIAK



Ijh^{****}

TURISMO GOMENDIOAK
EZAGUTU EUSKAL HERRIA



BILBAO

Hoteletik 1 ordu eta 15 minutura

Bilbo industriari eskainitako hiri grisa izan zen, baina gaur egun hiri kosmopolita eta kultur jarduera handikoa da.

Guggenheim Museoa bisitatzea gomendatzen dizugu, alde zaharreko Zazpi Kaleetatik pa-seatzea eta pintxo goxoak probatzea, Santiagoko Katedral Gotikoan sartzea, Plaza Berriko eta Riveraren Merkatuko giroaz gozatzea, Ca-

silda Iturrizar parkean paseatzea, Arte Ederren Museoa bisitatzea, itsasadarreko pasealekutik iluntzeaz gozatzea edo Artxandako begiratokira funikularrean igotzea Bilboko ikuspegi onenak ikusteko.

Gure gomendioa: oso eroso da hiria bisitatzea tranbia erabiliz, hiriko puntu turistikoenetan geltokiak eginez.

Familia-plana: itsasadarrean nabigatzen ari den itsasontzi batetik eroso bisitatzen du hiria, 1 edo 2 orduko ibilbidea eginez. Ontzi horiek Pio Baroja kaitik ateratzen dira.





Ijh^{***}

TURISMO GOMENDIOAK
EZAGUTU EUSKAL HERRIA



URDAIBAIKO BIOSFERAREN ERRESERBA / GAZTELUGATXEKO ARROKAK

Hoteletik ordu 1 eta 30 minutura

Urdaibaiko Erreserba ekosistema batzuek osatzen dute, hondartzak, itsaslabarrak, padurak eta barrualderako baso eta larreak barne.



ljh***

TURISMO GOMENDIOAK
EZAGUTU EUSKAL HERRIA



Hemen aurkituko duzu Euskal Herriko hezegu-
nerik garrantzitsuena, aberastasun ekologiko
handiko naturgunea, bertako padurak milaka
hegaztiren bizileku baitira.

Paseatu Laidako hondartzatik, eta bisitatu
Elantxobe, Ea edo Lekeitioko herriak.

Plan aktiboa: erreserbatu kayaken tour bat pa-
duran zehar, hegazti migratzaileak ikusteko.



Bermeon dago **Gaztelugatxeko Arroka**, euskal kostaldeko kokagune ospetsuenetako bat.

Uharte honen gailurrera daramaten 241 mailak igotzea merezi du; ermitara iritsitakoan paisaia oso ederra da. Ez ahaztu kanpaia jo eta desio bat eskatzea.

Bitxikeri bat: Game of Thrones telesailean Roccadragon izateagatik egin da ezagun.

Gure gomendioa: ikusi ilunabarra **Matxitxako** Lurmuturretik, Gaztelugatxe eta Bermeoren arteko erdibidean baitago. Sarbidea oso ona da, ia autoz iristen da eta Gaztelugatxeko ikuspegi oso desberdinaz gozatuko duzu.





DONIBANE LOHIZUNE / MIARRITZE

Hoteletik 50 minutura

Donibane Lohizune euskal kostaldeko herri polit eta bisitatuenetako bat da, koloretako leihatiladun etxe zuri tipikoekin.

Gomendatzen dizugu portutik eta hondartza inguratzen duen itsas pasealekutik ibiltzea, alde zaharreko oinezkoen kaleak zeharkatzea eta inguruko produktu tipikoak erosteko aprobetxatzea Rue Gambettan, San Juan Bautistaren eliza bisitatzea (alderantzizko itsasontzi itxurako gangarekin) eta Luis XIV.a plazako terraza batean atsedean hartzea.



Ijh****

TURISMO GOMENDIOAK
EZAGUTU EUSKAL HERRIA



Ezin da galdu: dastatu Maison Adam Macarons, egunero errezeta familiar berarekin eginak duela hiru mende baino gehiagotik, eta bisitatu Les Halles azoka, egunero irekitzen duena 7: 00etatik 13: 00etara. Gazta gustatzen zaienentzat, leku egokia da.

Miarritze Europako Burguesiako uda-hiria izan zen, horregatik dauka Belle Époque kutsu erromantiko hori. Arkitektura historiko garrantzitsua izateaz gain, hiribildu inperialez eta XIX. mendeko jauregi handiz betea, bere edertasun naturalagatik nabarmentzen da, itsasoari begira dauden begiratoki ederrekin.

Gaur egun, hiri dotore honek gustukoenetako bat izaten jarraitzen du udan, hondartzengatik eta surfa praktikatzeagatik.



Gozatu hondartzaz, koloretako marrak dituzten etxolekin, ibili itsas pasealekuan eta ikusi bertako eraikin batzuk, kasinoa adibidez, art déco estilokoa.

Kasinetik oso gertu Rocher du Basta dago, ikuspegi ederrak dituen pasabide batez kostaldeari lotutako haitz ederra.

Arrain plater bat dastatu arrantzaleen portuan eta Gustave Eiffelek eraikitako "Birjina arroka" zubia zeharkatu. Hemendik panoramika zoragarri bat ikusi ahal izango duzu, hondartza alde batetik eta euskal kostalde osoa Pirinioetaraino bestetik.

Gozatu giro ederraz Rue des Hallesen. Bertan, tabernak eta jatetxeak aurkituko

dituzu, ziztatzeko eta gustukoen duzun edaria hartzeko terrazekin. Ez ahaztu azoka bisitatzea eta ostrak probatzea, oso produktu tipikoa da.

Rue Mazagran eta Rue Gambetta bezalako kale komertzial ospetsuenetatik paseatu eta erosketak egiteko aprobetxatu.

Familia-plana: itsas lehoiak ikusi **Itsasoaren Museoan**.

Gozoa gustatzen zaienentzat: Pâtisserie Miremont-en pastel gozo bat hartu. Hiriko eraikinik zaharrenetariko bat eta Biarritzeko erregeen tea hartzeko lekurik gustukoena da.





Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
EZAGUTU EUSKAL HERRIA



SARA, AINHOA ETA EZPELETA

Hoteletik 1 ordu eta 20 minutura

Zalantzarik gabe, euskal iparraldeko eremuko herririk fotogenikoenak dira.

Herri txiki eta lasaiak dira, eta kaleak mihise batetik ateratakoak dirudite; beren ezaugarriekin eta etxe zuri zainduekin, koloretako leihatilekin, eliza txikiekin, euskal pilota-frontoi tipikoekin...

Ezpeletan, **Don Estebe eliza** bisitatzea gomen-datzen dugu, gotorleku itxurako tempo bat, eskualdeko ederrenetakotzat jotzen dena.



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
EZAGUTU EUSKAL HERRIA



ZUGARRAMURDI, ZORGINEN LEIZEA

Hoteletik 1 ordu eta 30 minutura

Zugarramurdikiko herritik oso gertu, Zugarramurdiko kobazuloak daude, edertasun handiko ingurune natural batean kokatuak; landaretzaren berdeak, uraren xuxurlek, hormen oihartzunak... leku honek giro magiko eta misteriotsua izatea eragiten dute.

Koba hau bisitatzen duzunean ulertuko duzu zergatik aukeratu zen leku hau antzinako erri-tu paganoak ospatzeko.



Sorginen leizea izena Inkisizio Santuak sorginkeriaz akusatutako pertsonak bizirik erre zituen prozesu historikotik dator. Gai hau interesatzen bazaizu, **Sorginen Museoa** bisitatzea gomendatzen dizugu.

Denbora baduzu: Zugarramurditik gertu **Elizondoko** herria dago, Nafarroako herri xarmangarrienetako bat.





Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
EZAGUTU EUSKAL HERRIA



GASTEIZ

Hoteletik ordu 1era

Gasteiz hiri atsegin eta eroso da, eta berdegune asko dituelako nabarmentzen da.

Bere hirigune historikoa Euskal Herriko enblematikoenetako bat da, erdi aroko trazaduraren zati handi bat osorik mantentzen baitu.


Paseatu eraikin historikoz betetako kaleetatik eta plaza ederrak bisitatzen, Andre Maria



Zuriaren plaza esaterako. Disfrutatu Aiztogile kale ezagunean pintxo batzuk jaten, eta atse-den bat hartu Floridako parkean, Frantziako lorategi erromantikoetan inspiratuta.

Oso gomendagarria: Egin bisita gidatu bat **Santa Maria Katedrala**ren zaharberritze-lanera. Ken Follet idazlearen inspirazio-iturri izan zena bere «Un mundo sin fin» libururako. (alde aurretik erreserbatuta).

Bitxikeri bat: hiriko artea gustuko baduzu, ezin duzu galdu alde zaharreko kaleetan eta Zaramaga auzoan banatutako **horma-irudien ibilbidea**.





Ijh^{***}

TURISMO GOMENDIOAK
EZAGUTU EUSKAL HERRIA



LAGUARDIA / ARDO-UPELTEGIAK

Hoteletik 1 ordu eta 40 minutura

Harresiz inguratutako hiribildu eder honek bere horretan mantentzen du Erdi Aroko jatorria, eraikin historiko bikainez betetako kaleekin.

Ardoa da herri honen bizitza eta historia markatu duen produktua; horregatik, oso interesgarria da bertako upeltegi batera bisita gidatua egitea.

Bisitatu **Santa Maria de los Reyes** eliza elizpe polikromatua ikusteko. Zoragarria da benetan.



Ijh***

TURISMO GOMENDIOAK
EZAGUTU EUSKAL HERRIA

Guardiatik gertu, **Elvillar** herrian, **La Chabola de La Hechicera** trikuharria bisitatzea gomendatzen dugu. Monumentu megalitiko interesgarria da, bere tamaina eta kontserbazioagatik.

Ezinbestekoa da: Ysios, El Fabulista, Solar de Samaniego eta Marqués de riscas... bezalako upategi bisitatzea.



4, 5, 9, 12, 13, 14, 15, 17, 23, 26, 27, 28, 30, 42, 46, 53, 60, 61, 70, 72. orrialdeko argazkiak:
images.basquetour.eus

6. orria: museoa.euskotren.eus

7, 31, 32, 34, 44, 58, 71. orria: CC BY-3.0-ES 2012/
EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola

8. orria: ekainberri.eus

14. orria: oarsoaldea.eus

18, 20. orria: turismozarautz.eus

25. orria: albaola.com

33. orria: sagardoarenlurraldea.eus

41. orria: txindokikoitzala.com

43. orria: Segurako Turismo Bulegoa

47. orria: oarsoaldeaturismo.eus

48. orria: CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-
Gobierno Vasco/Jose R. Varela Balenciaga

52. orria: Oñati Turismoa

64. orria: by Saul Mercado on Unsplash

65. orria: by Toa Heftiba on Unsplash

66. orria: by DAT VO on Unsplash

68. orria: visitnavarra.es

lh***